



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroak 15

Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre de 2022

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAREN ETA UPV/EHUREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA BERRITU DA JOKOAREN EUSKAL BEHATOKIAREN PROIEKTUAREKIN JARRAITZEKO

- **Segurtasun Sailak 2023an 100.000 euro bideratuko ditu Jokoaren Euskal Behatokiak (JEB) aurreikusitako jarduerak gauzatzeko**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUK 2020ko urrian sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatzeari, Jokoaren Euskal Behatokiaren bidez jokoaren arloko ikerketa-proiektuak garatzen jarraitzeko. Organo honen helburua da Euskadin jokoaren inguruabarrak etengabe aztertzea, sektoreari buruzko ikuspuntu orokorra ematearen bidez joko arduratsua sustatzen lagunduko duten politika publikoak lantzeko.

Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak gainbegiratuta aldi behin egiten diren inkesten eta azterlan ekonomiko eta sozialen bidez, Behatokiak [lan hauek egin ditu 2020tik](#):

- Jokoaren panoramika ekonomiko-enpresariala 2020
- Jokalarien prebalentzia, ohiturak eta profilak Euskadin 2020
- “Gazteak eta jokoak 2021” txostena
- Joko arduratsua sustatzeko jardunaldia: “Gazteak eta jokoak”
- Jokoaren sektoreko adierazle ekonomiko nagusiak 2021

Luzapen hau bi erakundearen arteko lankidetzaren positiboaren emaitza da, eta Segurtasun Sailak, beraz, 100.000 euro bideratuko ditu 2023an Behatokiak aldi horretarako aurreikusitako ekintzak gauzatzeko.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

IKERTALENT PROGRAMAK 1,8 MILIOI EURO DITU ETORKIZUNEO PROFESIONALAK NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAN GARAPEN TEKNOLOGIKO- ETA BERRIKUNTZA-ARLOAN PRESTATZEKO BEKETARAKO

- Hamabi prestakuntza bidean dauden ikertzaile gazteentzat izango dira (doktoratu aurrekoak) eta beste hamar langile teknologoak prestatzeko
- 2007an eman ziren lehenengo bekak, eta geroztik guztira 284 beka finantzatu dira

IKERTALENT prestakuntza-programaren deialdia egiteko eta oinarriak ezartzeko Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindua onetsi du Eusko Jaurlaritzak. Programak 2022rako 1,8 milioi euro baino gehiago izango ditu eskuragarri. Zenbateko horri esker, hamabi beka finantzatuko dira prestakuntza jasotzen duten ikertzaile gazteentzat (doktoratu aurrekoak) eta beste hamar beka Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan teknologoak prestatzeko.

Lehenengo bekak 2007an eman ziren, eta geroztik guztira 284 beka eman dira (131 ikertzaile gazteei eta 153 gazte teknologoei). Hortaz, ikus daiteke etorkizuneko profesionalak laguntzea garrantzitsua dela Eusko Jaurlaritzarentzat; izan ere, horrek nekazaritzako elikagaien industriaren balio-kate osoan I+G+b jarduera sustatzen du.

Onuradunak

Laguntza eskatzen dutenek proiektu jakin bakoitzerako zehazten diren titulazioetako bat izan beharko dute, eta eskaerarekin batera ziurtagiri akademiko osoa entregatu beharko dute; bertan kalifikazio guztiak jasoko dira, bai eta kalifikazio horiek noiz lortu dituzten ere. Halaber, *Curriculum vitae*-a aurkeztu beharko dute, adierazitako merituak egiaztatzen dituzten ziurtagirietan eta/edo egiaztagirietan.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako lehentasunen arabera, proiektu-proposamenak honako gai hauei buruzkoak izango dira:

- Nekazaritza eta akuikultura ekologikoa
- Proteina-iturri berria
- Bioekonomia
- Digitalizazioa eta teknologia berriak
- Baso-kudeaketa
- Arrantzaren kudeaketa eta itsasoko ekosistemak
- Nutrizioa, elikadura osasungarria eta jasangarria
- Animalia-osasuna
- Ingurumen-arloko jasangarritasuna
- Produkzio-sistema jasangarriak eta osasungarriak

Iraupena eta zuzkidura

Ikertzaileak prestatzeko laguntzak lau urte jarraituko iraupena izango dute eta baldintzak doktorego aurreko kontratuarenak izango dira; langile teknologoak prestatzeko laguntzek, berriz, 24 hilabeteko iraupena izango dute gehienez ere.

Laguntza hauek finantzatzeko gehienezko aurrekontu orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura, 1.814.600,00 eurokoa da.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileek honako diru-kopuru hau jasoko dute: 19.000 euro lehenengo urtean, 20.000 euro bigarrenean, 22.000 euro hirugarrenean eta 28.000 euro laugarrenean.

Langile teknologiak prestatzeko laguntzen kasuan, onuradunek urtean 14.000 euro jasoko dituzte.

Bi kasuetan prestakuntza-prozesutik eratorritako gastuak ordaintzera bideratutako laguntza osagarria jaso dezakete. Gastu horien artean honako hauek jasotzen dira: unibertsitate-ikastaroetan matrikulatzea, kongresu zientifikoetan, mintegietan, ikastaroetan eta lan-jardunaldietan parte hartzea, beste ikerketa- eta teknologia-zentro batzuetan egonaldiak egitea, material bibliografikoa edo doktorego-tesia aurkezteari lotutako gastuak. Kontzeptu horretarako onetsitako kopurua 8.000 eurokoa da; ikerlarien kasuan prestakuntza-urte bakoitzeko 2.000 euro izango dira, eta langile teknologoaren kasuan, berriz, 1.000 euro.

Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskaerak Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzenduko zaizkio. Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartu behar da: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029109>. Deialdia gehienez ere sei hilabeteko epean ebatziko da.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2,2 MILIOI EURO BIDERATU DITU UNIBERTSITATE IKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMETARAKO

- **2021-2022 ikasturtean, nazioarteko mugikortasunerako 2.514 laguntza eman ziren Euskadin**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du 2022-2023 ikasturtean unibertsitate ikasleen nazioarteko mugikortasun programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta Goi-mailako Arte eta Kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen agindua. Dirulaguntza deialdi honek 2.200.000 euroko zenbatekoa du 2022-2023 ikasturterako.

Europako Batasunak Erasmus+ programako mugikortasunetarako egiten dituen diru-ekarpenena ez da nahikoa kostuen %100 finantzatzeko; beraz, finantzaketa zabaltzea beharrezko gertatzen da deialdi honen bidez. Era berean, unibertsitate-mugikortasunetako zenbait Erasmus+ programan sartuta ez dauden destinoetara egiten da; horrela bada, horiek ez dituzte Europako erakundeek laguntzak jasotzen, eta, beraz, beste mugikortasun-programa horietan parte hartzeko duten ikasleak finantzatu beharra ere agerian geratzen da.

Nazioarteko mugikortasun programetan parte-hartzeak goi-mailako ikasleen formaziorako duen garrantziaz ohartuta, Hezkuntza Sailak aipatutako marko hori zabaltzen du, dirulaguntza deialdi honen bidez. Erasmus+ programara eta nazioarteko izaera duten bestelako mugikortasun-programetara atxikitako pertsonen mugikortasunen finantzazioa hobetzea da azken helburua.

Deialdi honek jasotzen duen diru-kopuru osoa (2.200.000€), beraz, era honetan banatua gelditzen da:

- 932.084 euro, SEPIE estatu erakundeak (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua) emandako laguntzak osatzeko
- 1.267.916 euro, estatuko erakunde horren laguntzarik gabe egiten diren egonaldiatarako

Dirulaguntza horiek eskatuko dituzten erakundeak, ikasturte honetarako nazioarteko mugikortasun-programak dituzten unibertsitateak edo Goi-mailako Arte eta Kirol irakaskuntzen ikastetxeak izango dira; dirulaguntzen azken onuradunak, berriz, mugikortasun-programa horietan parte hartzen duten ikasleak, betiere EAEko udalerriren batean administrazio-egoitza dutenak. Ikasle horiek graduiko unibertsitate-titulu ofiziala edo unibertsitate-masterra lortzeko ikasketak egiten, zein Goi-mailako Arte edo Kirol irakaskuntzak burutzen egon beharko dute 2022-2023 ikasturtean.

Joan den 2021-2022 ikasturtean nazioarteko mugikortasunerako 2.514 laguntza eman zituen Hezkuntza Sailak Euskadin, deialdi honen bidez.

Osasuna

OSASUN SAILAK IRAGARRI DU SEGURTASUN-PROTOKOLOAK INDARTUKO DITUELA OSPITALEETAKO AMATEGIETAN

Joan den urrian Basurtuko Ospitaleko amategian jaioberri bat lapurtu izanaren inguruko inguruabarrak analizatu ondoren, pazientearen segurtasunean adituak diren pertsonen taldeak gomendio batzuk eman ditu “EZ UTZI NI BAKARRIK” protokoloaren hedapen eraginkorrarekin lotuta, amategietako langileen identifikazioari eta zaintzaileen eta bisitarien sarbideari dagokienez.

Gotzone Sagardui Osasuneko sailburuak azaldu duenez, orain beharrezkoa da gomendio horiek amategi bakoitzari helaraztea, horietan guztietan erraz ezar daitezkeen neurri komun batzuk daudelako. Beste neurri batzuek, ordea, jarduketak eskatzen dituzte zentro bakoitzean oso desberdinak diren sarbide, espazio eta beste elementu arkitektoniko batzuen gainean.

Laburbilduz, aditu taldearen dokumentua ikusita, Osakidetza proposamen hau ari da lantzen:

- Jaioberriaren identifikazioari eta zaintzari buruz erditzeen arloan emandako informazioa dokumentatzea.
- Ohiko informazioa ematen denean, amategiko solairuan sartzeko segurtasun-protokoloari buruzko hezkuntza-materiala paper-euskarrian entregatzea.
- Gurasoei jaioberria zaintzeko segurtasun-protokoloari buruzko informazioa eman izanaren egiaztapena indartzea, bai haurdunaldiaren jarraipenean, bai ospitaleko egonaldian.
- Jarduera horiek erregistratzea: segurtasun-protokoloaren informazioa jasotzea, diptikoa entregatzea eta historia klinikoan egiaztatzea.
- Geletan informazioa bermatzea, “Ez utzi ni bakarrik” kanpainaren infografiaren bidez.
- Binilo grafikoak ere jartzea jaioberrien sehasketan.
- Ama-haurrentzako arretaren arloan, segurtasun-protokoloari buruzko profesionalen zuzendutako kanpainak egiten jarraitzea eta indartzea.

Langileen identifikazioari eta jantziei dagokienez, honako hau proposatzen da:

- Plantillak sentsibilizatzea profesionalak ageriko txartel pertsonal baten bidez identifikatzeko derrigortasunari buruz.
- Instalazioetan dagoen eta identifikazio-txartelik ez duen edonor identifikatzearen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Profesionalen uniformeen zaintza berrikusi eta hobetzea, eta horretarako espazio itxiak ezartzea.

Eta amategietarako irisgarritasunari dagokionez:

- Amategiaren eremurako sarbideen trazabilitatea kudeatzeko hobekuntzak ezartzea, bisitak eta profesionalak identifikatuta.

- Basurturen kasuan, pabiloiaren alboko sarbideetako atekak ixtea eta larrialdietarako atea alarma batez hornitzea.
- Ateen itxiera eta alarma-sistemaren funtzionamendua errutinaz egiaztatzea.
- Amategi-unitateetarako atekak irekitzeko sistema ezartzea, bai profesionalentzako, bai senideentzako, identifikazio-txartel elektronikoaren bidez, atezain automatikoko sistema batekin konbinatuta.
- Eraikinen kanpoaldean kamera bidezko zaintza-sistemak indartzea.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 4,5 MILIOI EUROTAN HANDITU DITU GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZETARAKO FUNTSAK 2022AN; FUNTS HORIEK, GUZTIRA, 49.500.000 EURORA IRITSIKO DIRA

Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara (GLL) bideratutako funtsak 4,5 milioi eurotan handitzea onartu du gaur Gobernu Kontseiluan; guztira 49.500.000 euro bideratuko dira bertara. Iñigo Urkullu lehendakariak joan den irailaren 22ko Politika Orokorreko Osoko Bilkuran iragarri zuen bezala, Hitzartuz programa berriak % 10 handituko ditu GLLetara ekitaldi honetarako bideratutako zenbatekoak, euskal biztanleen erosteko ahalmenaren galera arintzeko asmoz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022rako Aurrekontu Orokorretan hasieran aurreikusitako zenbatekoa pixkanaka handitu egin da, hiru krisi globali aurre egiteko. Krisi horien ondorioz, larrialdiko egoera ekonomikoak areagotu eta lehendik zeuden egoerak larriagotu egin dira. Hala, hasierako 27.000.000 euroei beste 10.000.000 euro gehitu zitzaizkien COVID-19aren pandemiak izan zuen eragin ekonomikoari aurre egiteko. Beste 3.500.000 euro gehitu ziren — Isuri Funtsetik zetozenak— Ukrainako gerraren ondoriozko beharrei erantzuteko. Gaur onartutako laguntza berriaren ondorioz 4,5 milioi euro gehitu zaizkio zenbateko orokorrari, modu horretan inflazioari eta energia-fakturaren garestitzeari aurre egiteko. Eta, aldi berean, beste 4,5 milioi euro bideratuko dira ezarritakotik gorako baliabide propioak jartzen dituzten udalei konpentsatzeko.

2022ko ekitaldian GLLetara bideratutako guztizko zenbatekoa, beraz, 49,5 milioi eurora iristen da gaur egun.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak berretsi egiten du etengabe ebaluatzeko duen konpromisoa eta, beharrezkoa izanez gero, bazterkeria-arriskua prebenitzeko, bazterkeria pertsonala, soziala eta lanekoa arintzeko eta herritarren eskubide sozialak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko funtsak handitzeko konpromisoa. Hitzartuz programarekin —zeinean sartzen baita GLLetara bideratutako funtsen gehikuntza berria—, Eusko Jaurlaritzak, alde batetik, bereziki indartzen du kolektibo ahulenei eta energia-fakturari aurre egiteko eta haien oinarrizko premiei erantzuteko zailtasun handienak dituztenei ematen zaien laguntza; bestetik, familia eta herritar guztiei erosteko ahalmenaren galera konpentsatzen die; eta, azkenik, enpresa-sareari laguntzen dio, egoera zailean dauden enpresa bideragarriei kreditua eskuratzeko aukera erraztuz.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK MILIOI BAT EUROKO GEHIKUNTZA ONARTU DU BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA HANDITZEKO DIRU LAGUNTZAN

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 15 milioi euro jarriko ditu 2021-2036 aldian Bilboko Arte Ederren Museoa eraberritze eta handitze laneterako, hasieran onartutakoa (12,6 milioi euro) baino kopuru handiagoa. Igoerak eraikuntza-industriako lehengai jakin batzuen kostuen igoera nabarmenari aurre egin nahi dio.

Bilboko Arte Ederren Museoko Fundazioaren Batzorde Betearazleak, 2022ko otsailean onartu zuen 3.589.000 euroko aparteko ekarpena (1.196.000 € fundazioko kide diren hiru erakunde bakoitzeko: Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala) obra gauzatzeko proiektuaren lizitazioa egiteko igoerari aurre egiteko.

Foster+Partners LTd + LM Uriarte Arkitektura SLP enpresak aurkeztutako “AGRAVITAS” izeneko proiektua izango da Bilboko Arte Ederren Museoaren handitze eta eraberritze lanetan garatuko dena. Museoaren Fundazioa osatzen duten hiru erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, lan horiek aurrera eramateko Kutxabank finantza-erakundearekin sinatutako kreditu lerroaren zenbatekoaren herena ordainduko diote Fundazioari. Guztira erakunde bakoitzak 15 milioi euro ordainduko ditu 2036ra bitartean.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

GOBERNU KONTSEILUAK HAINBAT AKORDIO ONARTU DITU EUSKAL MERKATARITZA-ELKARTEEKIN, 1.310.000 EUROKO ZENBATEKOAREKIN

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proposatuta, bost hitzarmen onartu ditu Euskadiko merkataritza-elkarteekin, guztira 1.310.000 eurokoak.

Lankidetzeta-hitzarmen horien helburua da lankidetzeta-esparru bat ezartzea saltokien elkarteekin (Arabadendak, CECOBI, Aenkomer, Bizkaidendak eta Gasteiz on), lehiakortasuna hobetzeko eta euskal merkataritza-sektorea bultzatzeko, sektore- eta sustapen-estrategiak garatuz, bai eta elkarte horiek sektorea dinamizatzeko eragile aktibo gisa sendotzeko ere.

Bost hitzarmenak antzera egituratzen dira, eta diruz lagundu daitezkeen gastuak diruz lagundutako jarduera edo programen esparruan proiektuak gauzatzearen ondoriozkoak izango dira, bai eta hitzartutako erakundeak Euskadiko retaila sustatzeko eta sustatzeko lanak egin ahal izateko beharrezkoak diren egitura-gastuak ere.

Seguridad

RENOVADO EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL GOBIERNO VASCO Y LA UPV/EHU PARA CONTINUAR CON EL PROYECTO DEL OBSERVATORIO VASCO DEL JUEGO

- **El Departamento de Seguridad destinará 100.000€ en 2023 para realización de las actividades previstas por el OVJ**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la prórroga del convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la UPV/EHU, firmado en octubre de 2020, para continuar con el desarrollo de proyectos de investigación en materia de juego a través del Observatorio Vasco de Juego. El objetivo de este órgano es el estudio y análisis permanente del juego en Euskadi, proporcionando así una visión global del sector para la elaboración de políticas públicas que ayuden a promover el juego responsable.

A través de encuestas periódicas, estudios económicos y sociales, supervisados por la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Seguridad, el Observatorio ha elaborado [los siguientes trabajos desde 2020](#):

- Panorámica económica empresarial 2020
- Prevalencia, hábitos y perfiles de las personas jugadoras en Euskadi 2020
- Informe “Juego y Juventud 2021”
- Jornada sobre juego responsable: “Juego y Juventud”
- Principales indicadores económicos del sector del juego 2021

Esta prórroga es fruto del resultado positivo de la colaboración entre ambas entidades y, por ello, el Departamento de Seguridad destinará en el año 2023 la cantidad de 100.000 euros para la ejecución de las acciones previstas por el Observatorio en ese periodo.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

EL PROGRAMA IKERTALENT DISPONE DE 1,8 MILLONES PARA BECAS DE FORMACIÓN DE LOS FUTUROS PROFESIONALES EN DESARROLLO TECNOLÓGICO E INNOVACIÓN EN EL SECTOR AGROALIMENTARIO

- Doce estarán destinadas a Joven Personal Investigador en Formación (predoctorales) y diez a Formación de Personal Tecnólogo
- Desde 2007, primer año en el que se concedieron las becas, se han financiado un total de 284 becas

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, por la que se convoca y se establecen las bases del programa formativo IKERTALENT, dotado con más de 1,8 millones de euros para 2022. Esta cantidad está destinada a la financiación de un total de doce becas para Joven Personal Investigador en Formación (predoctorales) y de diez para Formación de Personal Tecnólogo en el entorno científico-tecnológico y empresarial del sector agropesquero y alimentario vasco.

Desde 2007, primer año en el que se concedieron, se han financiado un total de 284 becas (131 para jóvenes investigadores y 153 para jóvenes tecnólogos), lo que da idea de la importancia estratégica que para el ejecutivo autónomo tiene el apoyo a los futuros profesionales, en aras al fomento de la actividad de I+D+i en toda la cadena de valor de la industria agroalimentaria.

Personas beneficiarias

Las personas solicitantes de estas ayudas deberán estar en posesión de alguna de las titulaciones que se especifiquen para cada proyecto concreto y en la solicitud incluirán el certificado académico completo, en el que se acrediten todas las calificaciones, así como las fechas de obtención de las mismas. También un *Curriculum vitae* acompañado de los justificantes y/o comprobantes que verifiquen los méritos alegados.

En base a las prioridades establecidas por el Gobierno Vasco, las propuestas de proyectos deberían versar sobre:

- Agricultura y acuicultura ecológica
- Nueva fuente de proteínas
- Bioeconomía
- Digitalización y nuevas tecnologías
- Gestión forestal
- Gestión pesquera y ecosistemas marinos
- Nutrición, alimentación saludable y sostenible
- Sanidad animal
- Sostenibilidad medioambiental
- Sistemas de producción sostenible y saludable

Duración y dotación

Las ayudas destinadas a formación del personal investigador tendrán una duración de cuatro años consecutivos y las características de un contrato predoctoral, mientras que las destinadas a la formación de personal tecnólogo tendrán una duración máxima de 24 meses.

El presupuesto global máximo destinado a la financiación de estas ayudas, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, asciende a la cantidad total de 1.814.600,00 euros.

El personal investigador en formación recibirá 19.000 euros el primer año, 20.000 el segundo, 22.000 euros el tercero y 28.000 euros el cuarto año. Por lo que se refiere a las ayudas de Formación de Personal Tecnólogo, tendrán una dotación económica de 14.000 euros anuales.

En ambos casos podrán contar con una ayuda complementaria destinada a sufragar gastos derivados del proceso de formación, tales como matriculación en cursos universitarios, asistencia a congresos científicos, seminarios, cursos y jornadas de trabajo, estancias en otros centros de investigación y tecnológicos, material bibliográfico o gastos relacionados con la presentación de la tesis doctoral. La dotación aprobada para este concepto es de 8.000 euros, disponibles a razón de 2.000 euros por año formativo, para personal investigador, y 2.000 euros, disponibles a razón de 1.000 euros por año formativo, para personal tecnólogo.

Plazo de presentación

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Las solicitudes se presentarán de forma telemática, accediendo a la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029109>. La convocatoria se resolverá en el plazo máximo de seis meses.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 2,2 MILLONES DE EUROS PARA PROGRAMAS DE MOVILIDAD INTERNACIONAL DE ESTUDIANTES UNIVERSITARIOS

- **El pasado curso 2021-2022 se concedieron 2.514 ayudas de movilidad internacional en Euskadi**

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy y a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado la orden por la que se convocan subvenciones dirigidas a programas de movilidad de carácter internacional de estudiantes de universidades y de centros superiores de enseñanzas artísticas y deportivas ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el curso académico 2022-2023. El importe global de esta convocatoria asciende a 2.200.000 euros.

La contribución financiera de la Comunidad Europea para las movidades del programa Erasmus+ no alcanza a financiar el 100% del coste de las mismas; por tanto, se hace imprescindible ampliar la financiación mediante esta convocatoria. Asimismo, algunas de las movidades universitarias se realizan a destinos no incluidos en el programa Erasmus+, por lo que no tienen acceso a las ayudas de los organismos europeos, constatándose así la necesidad de financiación al alumnado acogido a este tipo de programas de movilidad.

Consciente de la importancia de la participación en programas de movilidad para el alumnado de enseñanza superior, el Departamento de Educación amplía el citado marco mediante esta convocatoria de subvenciones, que tiene como objetivo mejorar la financiación de las movidades de las personas acogidas bien al programa Erasmus+, bien a otros programas de movilidad universitaria de carácter internacional.

La dotación económica global de esta convocatoria (2.200.000 euros), por tanto, se desglosa de la siguiente manera:

- 932.084 euros para completar las ayudas otorgadas por el SEPIE (Servicio Español para la Internacionalización de la Educación).
- 1.267.916 euros para las estancias que se realizan sin la ayuda del citado organismo estatal.

Las entidades solicitantes de estas subvenciones serán las universidades y centros superiores de enseñanzas artísticas y deportivas que presenten programas de movilidad de carácter internacional durante el presente curso, mientras que los destinatarios finales de las ayudas económicas serán los y las estudiantes –con vecindad administrativa en algún municipio de la CAPV- acogidos a dichos programas de movilidad. Este alumnado deberá estar cursando durante este 2022-2023 estudios conducentes a la obtención de título universitario oficial de Grado, Master universitario o enseñanzas artísticas o deportivas superiores.

Durante el pasado curso 2021-2022, el Departamento de Educación concedió, mediante esta convocatoria, 2.514 ayudas de movilidad internacional en Euskadi.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD ANUNCIA EL REFUERZO DE LOS PROTOCOLOS DE SEGURIDAD EN LAS MATERNIDADES DE LOS HOSPITALES

Una vez analizadas las circunstancias en torno al robo de un recién nacido el pasado mes de octubre en la maternidad del Hospital de Basurto, el equipo de personas expertas en seguridad del paciente ha realizado una serie de recomendaciones relacionadas con la efectiva transmisión del protocolo “NO ME DEJEÍS SOLO”, sobre la identificación del personal de las maternidades y sobre el acceso de personas cuidadoras y visitas.

La Consejera de Salud, Gotzone Sagardui, ha explicado que ahora es necesario trasladar esas recomendaciones a cada maternidad, porque hay medidas comunes fáciles de implantar en todas ellas, pero hay otras que requerirán actuaciones sobre accesos, espacios y otros elementos arquitectónicos muy diferentes en cada centro.

En definitiva, visto el documento del equipo de expertos, la propuesta con la que está trabajando Osakidetza son:

- Documentar la información proporcionada durante en el área de partos sobre la identificación y custodia del recién nacido.
- Cuando se proporciona la información habitual, realizar entrega de material educativo en soporte papel sobre protocolo de seguridad al ingreso en planta de maternidad.
- Reforzar la verificación de que se ha entregado la información a los padres y madres sobre protocolo de seguridad en la atención al recién nacido. Tanto durante el seguimiento de la gestación como durante la estancia hospitalaria.
- Registro de estas actividades: la información protocolo de seguridad, entrega dístico y verificación en la historia clínica.
- Garantizar información en las habitaciones mediante Infografía de la campaña “No me dejéis solo”
- Colocación incluso de vinilos gráficos en las cunas de los recién nacidos.
- Continuar y reforzar campañas dirigidas a los profesionales en el área de atención materno infantil sobre el protocolo de seguridad.

En relación a la identificación del personal y su indumentaria, se propone:

- Sensibilizar a las plantillas sobre obligatoriedad de la identificación de profesionales mediante tarjeta personal visible.
- Sensibilizar sobre la importancia de identificar a cualquier persona que se encuentre en las instalaciones y no porte tarjeta identificativa.
- Revisar y mejorar de la custodia de uniformes de profesionales y establecer espacios cerrados al efecto.

Y en relación a la accesibilidad a las maternidades:

- Implementar mejoras en la gestión de la trazabilidad de los accesos al área de Maternidad mediante identificación de visitas y profesionales.
- En el caso concreto de Basurto, cierre de puertas de accesos laterales del pabellón y equipar la puerta de emergencia con una alarma
- Comprobación rutinaria de cierre de puertas y funcionamiento del sistema de alarma.
- Establecimiento de sistema de apertura de puertas a las unidades de maternidad mediante tarjeta electrónica identificativa tanto para profesionales como para familiares combinada con un sistema de portero automático.
- Reforzar los sistemas de vigilancia con cámara en los exteriores de los edificios

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO AMPLÍA EN 4.5 MILLONES LOS FONDOS DESTINADOS A AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL EN 2022, QUE ALCANZAN UN TOTAL DE 49.500.000 €

El Ejecutivo vasco ha aprobado hoy en Consejo de Gobierno ampliar en 4,5 millones de euros los fondos destinados a Ayudas de Emergencia Social (AES), lo que eleva la cuantía disponible total hasta los 49.500.000 €. Tal y como el lehendakari, Iñigo Urkullu, anunció en el Pleno de Política General del pasado 22 de septiembre, el nuevo programa Hitzartuz amplía en un 10% las cuantías destinadas a AES para el presente ejercicio, con el fin de paliar la pérdida de poder adquisitivo de la población vasca.

El importe inicialmente contemplado en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2022 ha sido progresivamente incrementado para afrontar tres crisis de carácter global que han provocado un aumento de las situaciones económicas de emergencia y un agravamiento de las situaciones ya existentes. Así, a los 27.000.000 € de partida se sumaron 10.000.000 € más para contrarrestar el impacto económico que tuvo la pandemia por COVID-19. 3.500.000 € más se añadieron, procedentes del Fondo Isuri, con el fin de dar respuesta a las necesidades derivadas de la guerra en Ucrania. El nuevo refuerzo, aprobado hoy, suma a la cuantía general 4,5 millones de euros más para hacer frente a la inflación y el encarecimiento de la factura energética. Y, de forma paralela, otros 4,5 millones se destinan a compensar a los ayuntamientos que aportan recursos propios por encima de lo establecido.

La cuantía total destinada a AES en el ejercicio 2022 se eleva actualmente, por tanto, hasta los 49,5 millones de euros.

El Gobierno Vasco reitera de esta manera su compromiso de permanente evaluación y, en caso necesario, ampliación de los fondos requeridos para prevenir el riesgo de exclusión, paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y facilitar la inclusión de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de ciudadanía. Con el programa Hitzartuz, en el que se enmarca la nueva ampliación de los fondos destinados a AES, el Ejecutivo vasco refuerza de forma particular el apoyo a los colectivos más vulnerables y con mayores dificultades para hacer frente a la factura energética y cubrir sus necesidades básicas; compensa la pérdida de poder adquisitivo al conjunto de familias y ciudadanía; y apoya al tejido empresarial, facilitando el acceso al crédito a aquellas empresas viables que estén atravesando una coyuntura complicada.

Cultura y Política Lingüística

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA UN INCREMENTO DE UN MILLÓN DE EUROS EN LA SUBVENCIÓN DESTINADA A LA AMPLIACIÓN DEL MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

El departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco aportará 15 millones de euros para la financiación de la reforma y ampliación del Museo de Bellas Artes de Bilbao en el período 2021-2036, una cantidad superior a la inicialmente aprobada (12,6 millones de euros), y que pretende hacer frente al incremento sustancial de los costes de determinadas materias primas en la industria de la construcción.

El Comité Ejecutivo de la Fundación del Museo de Bellas Artes de Bilbao aprobó en febrero una aportación extraordinaria de 3.589.000 euros (1.196.000 € por parte de cada Institución miembro de la misma: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Bilbao) para proceder a la licitación del proyecto de ejecución de la obra y derivado del incremento del presupuesto inicial del mismo.

Las obras de ampliación se llevarán a cabo por Foster+Partners LTd + LM Uriarte Arkitektura SLP que desarrollarán el proyecto AGRAVITAS. Las tres instituciones que integran la Fundación del Museo, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao, abonarán a la Fundación un tercio del importe de la línea de crédito suscrita con la entidad financiera Kutxabank para llevar a cabo estas obras. En total cada entidad pagará 15 millones de euros hasta 2036.

Turismo, Comercio y Consumo

APROBADOS EN CONSEJO DE GOBIERNO DIVERSOS ACUERDOS CON ASOCIACIONES DE COMERCIO VASCAS POR UN IMPORTE DE 1.310.000 EUROS

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, cinco convenios con asociaciones comerciales de Euskadi por un importe total conjunto de 1.310.000 euros.

Estos acuerdos tienen como objeto establecer un marco de colaboración con asociaciones de comercios (Arabadendak, CECOBI, Aenkomer, Bizkaidendak y Gasteiz on) con el objetivo de mejorar la competitividad e impulsar el sector comercial vasco a través del desarrollo de estrategias sectoriales y promocionales, así como para consolidar a estas asociaciones como agentes activos de dinamización del sector.

Los cinco convenios se estructuran de una manera similar, estableciéndose que serán gastos susceptibles de ser subvencionados aquellos que sean derivados de la realización de los proyectos en el marco de las actividades o programas y los gastos de estructura necesarios para que cada entidad conveniada pueda llevar a cabo sus tareas de fomento y promoción del retail de Euskadi.